


Bizkaitarrei Bizkaieraz

ZER

369n. zenbakia • 2011 Jorrailla



www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

Baserria



Loditasuna



Mingorri

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2010-2011 IKASTURTEA

**BIZKAIERA 43. IKASTAROA
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA**

**43.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN**

Egunak: astelen, eguasten eta barikuetan edo
astearte eta eguenetan

Días: lunes, miércoles y viernes,
o martes y jueves

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Horas: Mañana, tarde y noche

Ordaña: 140 €

Curso completo: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao

Asiera: urriaren 11an

Comienzo: 11 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 25 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

www.flashcomposition.com

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN URTEKO BATZAR NAGUSIA

(Bilbaon 2.011n Epaillaren 31n)

Bi milla eta amaikagarren urtean Epaillaren 31ean arratsaldeko zazpiterdiak zirala, Euskerazaleak Alkartearen Zuzendari Batzordeak, aurretiaz deia eginda, Batzar Nagusia egin eban.

Bilbaon, Kolon de Larreategi kaleko 14n zenbakian, 2gn solairuan dagon Euskerazaleak Alkartearen giza-etxean.

Batzar onetara, aitatzen diran batzarkideak batu ziran:

Barroeta ta Amorrortu tar Klaudio.

Fernandez ta Ruiz de Eskide tar Karmele.

Agirre ta Fullaondo tar Bittori.

Uriarte ta Euba tar Ana.

Maria Luisa Arrieta Goya

Basañez Billalabeitia tar Eloie.

Egurrola ta Madariaga tar Iñaki

Garay Jorge

Alonso ta Iriondo tar Margari.

Atutxa ta Agirre tar Paul.



AURKEZPENA: Leenengo, batzarrari asiera emoteko, Barroetatar Klaudio Euskerazaleen alkarteko lendakariak adierazi eban batzarraren antolakuntza zelango baldintzatan egingo genduan. Ondoren, zutunik abestu euskun emen agertzen dan bertsoa

Seme-alaba onak
batzen dira pozez,
gurasoen ondoan,
alkar-barri emonez.

alantxe batu gara,
oitura dogun lez,
Euskerazalekoak
zintzo ta leialez,
urtean eindakoa
jakiteko gosez.

1.- IDAZKARIA :

Atutxa idazkariak, aurreko Batzar-Nagusiaren 2010 agiria irakurri eban eta ontzat artu zan.

2.- 2.010ko DIRU KONTUA:

Karmele arduradunak auxe esan euskun:

Urtero lez, 2010 urteko kontuak emongo dautsuedaz.

Aurten be, betiko moduan zorkarian amaitu dogu, ba dakizue proyecto guztitarako Foru Aldundiak, % 60 emoten dauskuela eta guk % 40 ipiñi bear dogu.

Aurten urtero lez, etxeko derrama euki dogu, tellatua eta patioak barriztuteko, baña ondiño lanak ez dabez egin. Asieran, asiko gara 700 eurokaz illero ordainduten. Lan orrek 18 milla euro edo 24.000 izango diralako.

Datorren urtean Foru Aldundiak gitxituko dau diru laguntza. Daukagun dirua luzatuko dogu.

Beste barik, datorren urterarte, Jaungoikoa lagun.

Batzar Nagusiak etxea konpontzeko, ontzat artu eban bear izan balego, prestamen bat eskatuteko.

DIRUZAINZAREN ARDURADUNA
Fernandez eta Ruiz de Eskidetar Karmele

3.- URTEKO EKINTZAREN AZALPENA:

Arlo onen azalpena, Barroetatar Klaudiok adierazi eban lendakari lez.

EUSKERAZALEAK ALKARTEA

2.010n URTEKO EKINTZAK

Adiskideok:

Urte guztietan lez, Batzar-Nagusi onetan, urte barruan egin doguzan lanen barria emoten dogu.

ILLEROKO BATZARRAK eta URTEROKOA:

Utsik egin barik bete dogu illeroko batzarra eta urterokoa egiteko zeregiña. Atutxatar Paulok gure bazkide eta idazkariaren BATZAR AGIRIETAN ikusi daiteken lez.

IPUIN-SARIKETA:

Urte guztietan lez eginda, oneik izan dira aurtengo sarituak:

- 1'go SARIA: Etxaburua tar Asier.
- 2'gn SARIA: Murua tar Jose Mari.
- 3'gn SARIA: Legarreta tar Asier.
- 4'gn SARIA: Leaniz tar Arantza.
- 5'gn SARIA: Merino tar Palmi.

EUSKAL ASTEA:

Euskeraren Astea be ospatu dogu Zemendia-ren 22tik. egunetik ogeitasei garrenera:

- 22- Astelenean Atutxa tar Paul.
- 23- Larrea tar Angel.
- 24- Uranga tar Erika.
- 25- Barroeta tar Klaudio.
- 26- Barikuan Atutxatar Paulok bere bigarren ber-baldia azaldu eban.

TAKOA BIZKAIERAZ

Betikolez takoa argitaratu dogu Bizkaiko Foru Al- dundiaren diru laguntzarekin.

Diru laguntza eukiten badogu, jarraituko dogu Takoa argitaratzen, baña ori murrizten badauz-



kue ez da erreza izango guk bakarrik argitara- tzea.

Aurten ez dakigu zer gertatuko dan; orregaitik Uz- taillako illaren arte ez dogu ezer jakingo.

Gu, orritxuaren atzean agertzen dan textoa idazten gagoz.

Konturatuko zarie baiña, urtero desbardiña dala, eta 365 zatitxu orreik idaztea lan aztuna dala, ez- berdiñak izatea gura badoguz izan daitezán.

Betikolez, Takoak Durangoko Azokan, arrakasta aundiena izan eban.

Jendea oitu da an eskatzen eta zuzen joaten dira Ge- rediaga Elkarteko stand´era gure takoa eskatzera.

Gainera “Takoa bizkaieraz” eskatzen dabe.

Beste leku batzuetan be banatzen dogu: eskoletan, ikastoletan, parroki batzuetan (Iurreta, Gorozika, Zornotza e.a.) eta mugako errietan (Aretxabaleta, Bergara, Aramaiao, Motriku. Gasteiz, e.a.)

EUSKERAZALEAK INTERNET´EN

Gure web orria ortxe jarraitzen dau, eta orain arte **180.000 bisitak** euki doguz.

Eskatzen dabien argibide barriagaitik, badakigu geiena, Unibertsitatetik eta orrelako lekuetatik da- tozela ainbeste bisita. (Deustu eta Errioxako Uni- bertsitate edo goi-ikastetxeetatik)

Barruen daukazan argibide barriak obetzen saiatzen gara, naiz eta batzuetan pentsatu antzerakoa dala.

Prest gagoz beste lan batzuk jartzeko baña “baime- nak” bear doguz eta ez da erreza ori lortzea.

Baten batek or ipintzeko modukoa eukiten badau zeozer, prest gagoz artzeko.

Ez dauka zetan bizkaieraz izan bear “erriko euske- rea” izaten bada.

IRAKASKINTZA:

Urte guztietan lez, jarraitu dogu asieratik Alkarteen onen elburua izan dan Euskera irakastea.

Ikasleak aspaldian ez dira gitxiagotu eta ez ugarritu be. Irakasle betikoak zintzo jarraitzen dabe.

Aurten arazo bat euki dogu, Kontxita Barrutia geixotu egin da, baña bere ikasleak Margari Alonsoren ikasleakaz alkartu dira, orrela konpondu dogu arazoa.

“ZER” ALDIZKARIA:

Gure “ZER” aldizkaria illero agertu da eta asko poztuten gaitu lan onek, bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakarra dalako.

Argitaratzeko ez daukagu arazo aundirik, baña zabalatzeko eta saria eskuratzeko Bilbaon gaitz egiten jaku kobratzaille bat aurkitzea, eta errietan ezin dogulako kobrau, gitxi ordaintzen dabe BBKko gure kontuan.

Alan da be, aurrera egiteko asmotan gagoz. Eta zuk be, euskera bizia, errikoa, maite dozunez, lagundu zeinke modu onetara:

- bazkide barrien izena emonaz.
- ZER aldizkarian atarateko lanak bialduz.
- ekonomi arloan eskua luzatuz. Eta diru biltzaileak aurkeztuz.

Agustin OÑATE eta Agustin ARRIENeri eskerrak emon euren lanakaitik.

ETXEA:

Ba-daukaguz arazoak etxe zarra dalako daukaguna, eta “derramak” edo ordaindu-sariak aundiak diralako, baña datorren urtean (2011) lan asko egin bear dira, eta orregatik derrama andiak eukiko doguz, ondiño ez dagiku zenbat izango dira baña diru asko ziur.

Amaitzeko, eskerrak emon bear dautsoguz Bizkaiko Foru Aldundiari.

Ez gitxiago idazleai, irakurle eta lankide guztiai. Bai ta eskerrak be irakasleei eta ikasleei zintzoak izategaitik.

Ekintza guzti oneik, ontzat artu ziran.

4.- ZUZENDARITZAREN EGOKITASUNA:

Ontzat artu ziran batzarkide guztiak, eta eten barik jarraituko dabe aurrerantzean.

5.- GALDE-ERANTZUNAK:

Klaudio lendakariak irakurri euskun Labayruk bialdutako eskutitza, lekua eskatuz, euren ikas-ekintzetarako, eta ontzat artu zan.

Euskerazaleak alkartearen aldetik, Klaudio Barroeta Lendakaria eta Paulo Atutxa Idazkaria, almen guztiakaz izentatu ziran, Labayru-ren eskaera au aurrera eroateko.

6.- MENDEBALDEKO SARIA

Mendebalde Elkartekoek, Euskaltzaindiaren aretora deituta, sari bat emon euskuen 2010 Maiatzaren 13an, gure Euskeraren aldeko ekintzagaitik.



AMAIERA:

Klaudio lendakariak, batzarrari amaiera emoteko zutundu zan, eta bertso eder au eskeiñi euskun:

**Baserritar zintzoak,
udazken aldean,
pozik ikusten ditu
frutuak soloan.**


**EUZKERAZALEAK, be,
Batzar Nagusian,
ikusi ditu lanak
itxura ederrean.
Egin daigun aurrera
gabiltzan bidean!.**

Beste barik eta gaueko bederatziak zirala, batzarra amaitutzat emon genduan.

Klaudio Barroeta Amorrortu
LENDAKARIA

Paulo Atutxa Agirre
IDAZKARIA

LODITASUNA



Gizateriaren osasun egoera kontutan artu ezker, nabaria da aspalditik oikoak direla osasun arazo geiegizko pisua eta loditasuna. Gañera oso azkar ugaritzen doan gaitza da. XXI mendean osasun arrisku kezkarria gertatzen ari da.

Sendagilleek diñoe gaitz onen sortzaileak dieta desegokia eta ariketa fisiko eza direla.

Gaur egun tabakoa beste arriskutsua gertatzen ari da. Bai bata zein beste biotzeko gaixotasunen sortzalle zuzenak dira.

Zenbait emakumek uste dabe tabakoak loditasuna ekiditen dabela. Oker andia.

2002 urtean egindako neurketen arabera munduan 700 milloi erretzaile badago orreitatik 300 milloik dabe loditasuna.

Beste lurraldeetan, Asia esaterako, loditasun adierazgarri lez artu daitekeela (gero argituko da zelan) 500 milloi lodi baño geiagok dabela beren gaitzari lotuta onako auen bat: diabetesa, odol presio altua eta biotzeko gaixotasunak.

Loditasun kopurua oso edatua agiri da Errusian eta Egoafrikan, non emakume lodien kopurua Ipar Ameriketara baño andiagoa dan.

Loditasunaren geitzea nabarmen ari da azten eta ori ondoen Ingalaterran ikus daiteke

Loditasuna eta yagokozan ondorio kaltegarriak goraka doaz era finkatuan mundu osoan.

Aldi berean European urtero 1,5 milloi iltzen da biotzeko gaitzengatik.

Jakiña da gatz ugari, fruitu gitxi, koipezko saturatuak eta barazki gitxiko dietak biotzeko gaixotasunen arriskua anditzen dabela.

Ondorioztatua dago dieta desegokia eta ariketa fisiko ezak European diran biotzeko gaixotasunen erena sortzen dabela.

Beste erara esanda, urtero ia milloi erdi pertsona iltzen da dieta desegokiaren erruz. Dieta eta ariketa fisikoa obetzeak onura itzelak ekarriko leukiok ez osasunari.

Gomendio batzuk osasuna obetzeko.

1- Koipezko saturatuak eta abereenak gitxiago erabili.

2- Fruitu eta barazki geiago jan.

3- Gatza gitxiago artu.

4- Ariketa fisiko geiago.

5- Gorputzeko koipea gitxitu.

Obekuntzak Finlandian eta Norvegian frogatu dira.

Elikadura obetzen daun "euro dieta" ere bada.

Garapen bideko nazioetan loditasuna naiko alkartua dago beste gatz kroniko batzuen azkundearekin: biotzekoak, diabetesa eta minbizia.

Odol presio altua eta odolean kolesterol geiegizko kopurua biotzeko gaixotasunei atxikiak dagoz, eta elikatze desegokiari: koipezkoak, azukre ugari artzea, gatza daben jakiak, eta abar.

Garrantzi andikoa da jabetzea zerk bultzatzen dauen elikadura jokaera orreitarra.

Loditasuna neurtzeko "gorputz masaren batz bestekoa" erabiltzen da. Au da, pisu eta altueraren arteko batz bestekoa.

Masa (kilotan)

Altuera (metrotan)

1. Ez dau erabateko baliotasuna: aldaerak dagoz adina eta sexuaren arabera.

2. Adierazgarri onetan ilkortasun arriskua aurre-ratu daiteke.

EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	DIAGNOSTIKOA
> 16	> 17	ELIKADURA URRITASUNA
17-20	18-20	PISU GITXI
21-24	21-25	NORMALA
25-29	26-30	GAIN PISUA
30-34	31-35	LODITASUNA
35-39	36-40	LODITASUN NABARIA
> 40	> 41	LODITASUN ERIGARRIA

Ondorio gisa: Gorputz Masari arreta jarri bear jako, gain pisua, loditasuna edo argaltasuna ekiditeko.

Agustin Oñate.
(*Patxi Otamendik euskeratua*)





EUSKAL ASTEA
Klaudioren Itzaldia



BASERRIA

I. Zatia

1.- Kokalekua ta izenak.

Baserrinari, landetxea, mendietxea ta basetxea be esaten jako, non dagoen edo ze lanetarako eraikita dagoela adieraziz. Mendi ta baso, soro ta belardi, aberezaintza, edo ta arrantza gogora ekarten dauskuela. Legorrean batzuetan, itsartzean bete batzutan.

Baserriko bizilagunak “baserritarrak” dirala diñogu. Euren zeregin nausiena abelzaintza ta nekazaritza edo lurra landutea izan da geienetan. Aspalditik alan jokatu ba dabe, gaurko egunez beste bide ta urten bide batzuk artu bear izan dabez sarritan.

Industria lan barriari ekin deustie baserritar askotxuk, bai eta baserri etxeak barriztu ta turismoetxe lez atondu be, ekonomi arazoari aurrea egitearren.

2.- Garapena.

Urte askotxu igaro ziran alik eta baserriak itxura ta izate barria artu arte. Esan leike erriak iri bilduaren baimenak lortu ezkerotzik sartu zirala etorkizun bide luzean. Etxeak sendoago ta bizimodu erosoagorako lez agertu ziran iri bilduetan. Baserritarrak ontzat artu ebezan bide barri orreik

Oso ondo etorri jakien baserritarrei iri bilduetan etxegille jakitun egotea. Jakitun etxegintza ikasteko leketan ibilita gai ziran, erakusteko zelan egin plano ta obrak benetako garantiagaz.

3.- Jabetasuna.

Etxe bat egiteko ainbat gauza edo material aurreratu bear eben: etxea erakiteko toki ta lurra, ormak egiteko gaia, ta batez be egurra.

Garraio arloa be etzan aztutzekoa. Eta ganera etxegilleari ordaindu bearra. Ortik baserritarrak eziñean aurki zitezkean eta beti be buruaust eta urteetan estu ta larri irauñ bearrean.

Gitxi batzuk gauza izaten ziran etxearen jabetasuna lortuteko. Askok ta askok errentan artu bearrean arkitzen ziran. Amaikatxu baserritar egon dira euskalerrian ointzurarte etxearen jabetasuna eskuratu barik, egoera estuan, biotz gogorreko usaben menpean.

4.- Baserri etxea “osotua” lez egiten zan.

Au da, etxean bertan egoten eta egiten zan baserritar sendiaren bizitzarako bear zana.

Abereak: idi, bei, zekor, ollo, koneju, txarri...

Soloak, belardiak, iturria...

Janarigaiak: ortuariak, azak, porru ta...,

Edatekoa: ura, sagardoa, txakolina, garagardoa.

Labea: ogi, sagarrak....erreteko.

Lanabesak: goldeak, laiak, narrak, azkora, atxurak, kakoak...

Garraiorako tresnak: gurdia, lera...

Oñetakoak: abarkak...

Osasunerako: petrikilloak...

5.- Baserri etxearen egitura.

Batzuk andi ta dotoreak ziran. Beste batzuk apalagoak.

Egur asko erabilten zan. Zutabe ugari ordena jakin batean ipiñita.

Izkiña bakoitzean zutabe bat egoan. Onein luzera gorañokoa zan, talleturaño.

Itxuraz ez ziran zeatzak, baña geienak laukizuzenak ziran, alboetatik luzeagoak.

Aurrekaldean zurezko ate andia izaten eben eta naiko leioakaz ornituta.

Askotan bigarren solairuan balkoi bat egoten zan. Solairu onen forma laukiduna zan, baña goi aldean, ganbaran, irukiantzeko (triangulo) egiten eban tellatua dala ta.

Tellatu zabala dabe, isuri bi aldekoa, eta normalean tella gorrizkoaz osatuten zan.

6.- Beste ezaugarri bat izan daiteke: oinplanoa angelu zuzenekoak eukitea.

Beti be etxearen planoetan ikusten dan lez geienetan, ikuspegi bi doguz:

kanpokoa bata ta barrukoa bestea.

Kanpoan, aurrez begiturik, solairu biko eta irukoak nabarmenduten dira.

Etxeko ormak morteroaz gogortutakoak izaten dira, egur abeakaz lotuta, zearretara edo ta kurutzatuaz.

Badira baserri dotoreak arriz egindako ormadunak ta bai ta ladrilluekaz, zati batzuk beñepein, jantzi-takoak be.

Solairu guztietan kanpoko argieri bidea emoteko leioak dagoz, zarrenetan olezko kontrabentanakaz.

Sarriten beko aldean portalea daukien baserriak ikusi leikez. Bertanetxeko lanak ta tresnak egokituteko lekutzat erabilten zan.

Etxebarrura sartuaz solairu bakarrekota zati bitan banatuten zan: zati batean pertsonak bizi ziran: sukalde, gela ta jantokiaz. Eta bestean ukullu ta abereaketa lanabezen gordelekua.



Solairu bikoetan, bean personak eta abereak kokatzen dira.

Irukoetan, beko solairuan ukullua ta abereak dabe lekua.

Bigarrena pertsonantzako da, logelak, sukalde ta jantokia.

Irugarren, goian solairuan ganbarea leortegizat erabiltekoa (patatak, tipulak, piparrak, sagarrak, jantziak...)

7.- Materialak.

Antziñean dan-dana zan egurrezkoa, baña denporegaz materialak aldatzen joan ziran.

Garai batetan mortero berezia erabilten zan ormak egiteko. Karegaz zurituta.

Geroago egurra, ladrillua ta arria erabilten asi ziran. Egurra, ormak lotu ta tinkotuteko.

Arriabeko solairuko orma egiteko. Ladrillua bigarreneerako.

Barroeta ta Amorrortutar Klaudio
(Munetxe)
(Bilbon, 2011-01-27)

1162 urte inguruan, Logroño, lenengo uria, Santxo IVgatik artuta.



Nafarroa 1200. urtea (II)

Santxo VIa Jakitunak berreskuratutako lurraldeak (1162-1163)

Alfontso VIIa (1157) eta Santxo IIIa (1158) erregeen eriotza ostean, Gaztelako Alfontso VIIIaren (1158-1214) adingabetasunak sortutako nora eza baliatuz, Santxo VIa Jakitunak (1150-1194) ekimen militarra abiatu eban 1162 eta 1163 urtetan, Iruñako erresumak XI mendean galdutako lurralde berreskuratzeko gaztelarren menpekotasuna gainditzeko¹. Ekimen orretan 1076 urteko mugak berreskuratzen saiatu zan, Errioxako lurralde bereganatuz, orduan Gaztelaren menpe egozan mugak Araba eta Burgosko eremuetara zabalduz². 1162 urterako artuak zituan Logroño, Entrena, Nafarrete, Pazuengos, Miranda Ebro, Ameyugo, Santa Gadea, Granon, Briviesca eta Añana Gatzagaraño. Araba eta Durangaldea lortu zituan, naiz eta zailtasun an-

diak aurkitu Naxeran, Haron eta Kalagorri³. Ekiñaldi orreitan, Vela-tarrak leial izan jakozan nafar erregeari, eta Haro-tarrak gaztelarren aldeko.

Santxo VIaren ekimen garrantzitsuenetako bat Iruñako erregetza birmoldatzea izan zan. Iruñako erresuma izena aldatu eta Nafarroako erresuma izena ipiñi eban (1162), politikoki indartzeko asmotan, erregetza mantentzeaz gain bere agintea lurralde zabalagoetara edatuz. Orrela erresumako agintari gisa nabarmentzen zan. Onek aldaketa soziala ekarri eban, erresumako malla sozialak bateratuak geratu ziran-eta (nobleak, frankoak eta landa eremukoak). Jauntxoak erresumako beste biztanleak bezala menpeko geratu ziran, jauntxo eta menpekoen arteko arremonak aulduz⁴. Orretarako, erresuma are eta geiago zuzendu eban Araba eta Gipuzkoan jauntxoek euren lurraldetan eben aginteari aalmena kenduz.

1.- FORTUN PEREZ DE CIRIZA, L. J., "Del Reino de Pamplona al Reino de Navarra", *Historia de España Menéndez Pidal*, IX liburukia, Espasa Calpe, Madril 1998, 627 orr.

2.- ARTOLA GALLEGO, M. (ed.), *Historia de Donostia-San Sebastián*, Nerea, Madril, 2004, 26 orr.

3.- ELIZARI HUARTE, J. F., *Sancho VI el Sabio, rey de Navarra*, Ed. Mintzoa, Iruna, 1991, 101-104 orr.

4.- NAVARRO, F. J. (koordinatzaile), *Nueva Historia de Navarra*, Iruna, Ediciones Universidad de Navarra, EUNSA, 2010, 193 orr.

Gaztelarren erantzuna (1173-1179)

Ekimen militarreko amar urte ondoren gaztelarrek, Alfontso VIIak zuzenduta, Nafarroaren aurka aibat erasoaldi militar asi ebezan, batzuetan Aragoiko erregearekin batera, 1162 eta 1163 urtetan lortutako lurraldeak berreskuratu naian. Borrokaldiak 1173 eta 1176 urte artean izan ziran. Nafarroa eta Gaztelako muga gunetan jardun eben eta ondorioz leku auek bereganatu zituzten: Portilla, Añana Gatzaga eta Malbezín (Durangaldea). Ingalaterrako Enrike IIak egindako akordiorako bitartekaritzak porrot egin ebenez eta erresuma barriro zatitua izango zanaren arriskua aurrean (Cazorla, 1179ko martxoan), errege nafarrak Gaztelakoarekin bake ituna sinatu eban 1179ko apirilaren 15ean. Bertan Errioxako lurraldeak uzten zituan, Bizkaiko jaurerria Gaztelara lotua geratzen zan eta zin egiten eban erresumak ez ebal Trebiño eta Gaztelaz beretzat artuko. Orrela jauntxo arabarren jabegoak leen legez jarraituko eban. Nafarroak Araba, Durangaldea eta Gipuzkoa mendebaldeko lurraldeak bereganatuz, erresumen bi arteko muga Baia eta Zadorra ibaien lerroan geratzen zan, aldi berean Durangaldea aldera be sartuz eta Deba ibaia bidez Gipuzkoara sartuz Bizkaiko itsasoraiño.

Garai orretan, Bizkaiko jaurerria Lope Diaz kondetaren jabegoa zan eta bere ondorengo Diego Lopez Gaztelako erregeen zerbitzuan ziarduan. Vela-ren seme Juan Velaz ez zan Arabako mandataria, gaztelarrekin ari zalako. Egoera orretan, Santxo VIa Jakitunak Ladron de Gebararen lurra zatitu zituan, mendebaldeko eskualde artan errege agintaritzaren sendotzeko. Eskualde guztiak bateratu eta eskura izateko, leku estrategikoenak sozialki egokitu zituan eta babestutako iribildu barriak sortu: Erriberri (1149), Guardia (1164), Donostia (1180), Gasteiz (1181), Antoñana (1182), Bernedo (1182) eta Argantzun (1191). Erregearen ekimen oneik desatsegintzat artu zituzten jauntxo arabarrak, esan jakieako Araban ez zala erregearen botererik andituko eta bere jabegoak babestuko zirala. Baña bereziki jauntxo arabarren jabegoetan eskua sartu bear izan eben eskualdean iribildu barriak eraikitze⁵. Jauntxo arabarrak alboratu eta jauntxo nafar zein errioxarrak jarri izana, gei errege agintaritzaren zabaltzea eta lurra kentzeak jauntxo arabarren asarrea sortu eban.

5.- DIAZ DE DURANA ORTIZ DE URBINA, J. R., *Álava en la Baja Edad Media a través de sus textos*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1994.

Erresuma zatitzeko saio barriak (1198)

Gaztelako Alfontso VIIIari Alarcos-en (1195) garaitu ondoren, Leon eta Nafarroako erregeek, meatxatu andieneko ziranak, errege gaztelarraren aurka ekin eben. Gaztelakoen erantzuna laster gauzatu zan: aragoitarrekin itun barria Calatayuden 1198ko maiatzaren 20an sinatuz, Nafarroako erresumaren osotasuna arriskuan izten eben. Errege gaztelarraren eraso aitzaki oneitan oiñarritu zan: nafarrek itzartutako su-etenak autsi zituztela, gaztelu batzuk bereganatu izatea eta mairuekin bat egitea. Oraingoan, Nafarroaren aurka errege bien armadak indarra erabili eben: gaztelarrak Nafarroan sartuz Miranda Arga eta Izura artuz; aragoitarrek Oibar eta Burgi. Galera oneik gei Aragoi arerio billakatzera eta Santxo VIIa Indartsuak almoadekin ituna egiteak, Gaztelaren esku-artze militarra bultzatu eben 1199 urte asieran.

Gasteizko setioa ondoren Araba, Gipuzkoa eta Durangaldea galtzea

1198 urtean erresumako zatiketagaitik Santxo VIIa Indartsuak mairuei laguntza eskatu eutsen, almoadiarrak⁶ ziralako gaztelarren erasoari aurre egin eikien bakarrak. 1199ko udabarrian Gaztelako Alfontso VIIIak Nafarroan indarrez sartzea erabaki eban, nafar erregea lurralde musulmanetan egoala baita jauntxo arabarrak zein gipuzkoarrak erregearen egitasmo eta ekinaldien aurka egozala probestuz. Errege gaztelarrak, Pancorbotik abiatuta, Araba eta Trebiñoko lurraldeak eraso zituan, nafar erresumak mendebaldean eban lekurik garrantzitsuena Gasteiz ekaiña asieran setiatuz. Iria setiatu artean, gaztelarrek nafar erresumara sartu-urtenak egin zituzten. 1199ko udazkenean, eskualdeko jauntxo batzuen lankidetzaz, ala nola Bizkaiko jaun Diego Lopez Harorena, gaztelarrek Gipuzkoa eta Araba geiena artua eben, naiz eta gasteiztarrek eta gaztelu batzuetako babesleak, Trebiño eta Portilakoak⁷, atzera ez egin.

6.- FORTUN PEREZ DE CIRIZA, L. J., *Sancho VII el Fuerte (1194-1234)*, Iruna, 1987, 153-155 orr.

7.- FERNANDEZ DE LARREA ROJAS, J. A. *La conquista castellana de Álava, Guipúzcoa y el Duranguesado (1199-1200)*, R.I.E.V., 45 liburukia, 2 zbkia (2000), 425-438 orr. Ikus ere FORTUN PEREZ DE CIRIZA, L. J., "La quiebra de la soberanía navarra en Álava, Guipúzcoa y el Duranguesado (1199-1200)", R.I.E.V., 45 liburukia, 2 zbkia (2000), 439-494 orr.

1200 urte asieran, gaztelarren setio luzea zala eta, Gasteiz errenditu egin zan. Gartzia Eugi fraide kronikagile nafarrak XIV mende bukaeran iñoan errendizioa ostean gasteiztarrek beste amazazpi egunez eutsi ebela, nafarren laguntza elduko jakien itxaropenaz⁸. Vianako Printze



1200 urtean, Gazteluko Alfonso VIII, Gasteiz arrapu eban.

Karlosek bere “Crónica de los Reyes de Navarra”-n (c. 1454) aurre egite orren barri emoten dau: “[...] e como quiera que Vitoria tobieron sitiada cerca un año, e otras villas e castillos, e ficieron todo su esfuerzo de se defender; pero finalment mas non pudiendo facer, hobieronse de render por fuerza; e ansi tomaron la tierra de Álava e la de Guipuzcoa injustament [...]”⁹. Bestalde “Crónica latina de los Reyes de Castilla” idazkian (c. 1223-1239) gaztelarren erasoia olan arrazoitzen da “[...] los daños que el rey de Navarra le había causado a él y a su reino en el tiempo de su tribulación [...]”¹⁰. Toledoko artzapezpiku Rodrigo Ximenez Radak idatzitako “De rebus Hispaniae”-n (c. 1243) esaten dau gaztelarrek leku auek bereganatu zituztela: Gasteiz, Ibida (Trebiño), Araba eta Gipuzkoa. Eta leku oneitako gaztelu eta ingurukoak: Donostia, Hondarribia, Beloaga (Oiartzun Bailaran), Zaitegi, Aitzkorrotz (Eskoriatza), Arluzea, Artzorokia, Gasteiz Zarrarra, Maraño, Auza Gaztelu (Zaldibia), Ataun, Irurita eta San Vicente. Trebiño eta Portilla, ordea, denbora gitxi gerora lortu zituzten, Intzura eta Miranda Arga trukean jarritz¹¹.

Paula Martinez Hernandez

Patxi Otamendik euskeratuta



Gasteizko Santa Maria katedralea, sarrera bat

8.- ORCASTEGUI, C., *Crónica de los Reyes de Navarra de García de Eugui, en Príncipe de Viana*, 152-153 zbakia (1978), 547-572 orr.

9.- YANGUAS Y MIRANDA, J. (ed.), *Carlos Príncipe de Viana, Crónica de los Reyes de Navarra*, Pamplona (1843)/Valencia (1971), 102 orr. eta hurrengoak.

10.- CHARLO BREA, L. (ed.), *Crónica Latina de los reyes de Castilla*, Madril 1999, 42-43 orr.

11.- FERNANDEZ VALVERDE, J. (ed.), *Roderici Ximenii de Rada, Historia de Rebus Hispaniae sive Historia Gothica*, Turnhout (Belgika), 1987, 253-254 orr. Ikus VII liburua, XXXII kapitulua, “De captione Victorie, Gvipvsce et Ibide”. Ikus baita ere RAMOS AGUIRRE, M., “La frontera occidental del reino de Navarra en 1200: perspectiva arqueológica”, *R.I.E.V.*, 45 liburukia, 2. zkia (2000), 495-538 orr.



MINGORRI

Lan au irakurri baiño leen, pentsa eizu zer edo nor izan ete dan Mingorri. Izen ori dauan zerbait edo ipuiñeta-ko pertonaia ren bat ezagutzen al dozu? Zergatik jarri dautsoe izen ori? Ondoren irakurri eizu lana.

Mingorri Euskal Erriko erri ezagun bateko pertsonaia ospetsu bat da. Izen orrekin norbaitek pentsa daiteke gure mitologiako pertsonaia bat dela, Tartalo edo Basajaun lez, baiña ez da mitologiako pertsonaia, baizik eta Aste Santuko prozesiona urtetan dan irudietako bat.

Pertsonaia au lekeitiarrek ondo ezagutzen dabe, lekeitiar gazteek eta umeek geienbat. Lekeitian bada Aste Santuan oitura bitxi bat, batez bere umeen artean. Garai orretako gomazko gozokiak egiten dira, onei “karamelo gomazkoak” deitzen dautsue lekeitiarrek. Baiña zer dira gomazko karamelo orreek? Bada, paperezko otarretxoetan ipiñiako karamelo zatiak, au da ura eta azukrea besterik ez daukadanak. Gozoki arruntak baiño bigunagoak dira, gomazkoak emoten dabe eta, beraz, luzatu egin daitezke.

Baiña zer ikusirik dabe gozoki onek Mingorriekin? Bada, beste leku batzuetan txokolatzeko arrautzak jaten diran lez, **Lekeitian Aste Santuan** gozoki onek erabiltzen dabez, baiña ez jateko, deabruari barre egiteko baiño.

Bariku Santu egunean Mingorri izeneko pauso bat ateratzen da **Lekeitioko prozesioan**. Mingorri ori

erdi zakur, otso eta azeri moduko animalia arraro baltz-baltza da eta min gorri luze-luzea ateratzen dau, ortik Mingorri izen.

Animali orrek deabrua irudikatzen dau eta atzean erioa irudikatzen dauan beste estatua bat dauka. Umeek, Mingorri euren aurretik pasatzen danean, iseka egiten dautsoe eta ark dauana aiñako mii luzea ateratzen dautsoe, gomazko karamelua, esatebaterako. Ondoren karamelo orreek deabruari gaiñera botatzen dautsoez eta onen gorputzean itsatsita gertzen dira, materia itsakorra dalako. Bizia benetan!

Agustin Arrien





Euskalerria edo Euskadi

“Berezko sorterri edo aberria da” (II)

EUSKALERRIA.

Euskaldunen erria beren demokrazizko nortasun aundiagaitik gaztea izan arren, antziñako alditan egin zan erria da.

“Wurm” deritxon azkeneko izotzaldia orain 50.000 urte urtzen asi zanean, gorengo paleolitikotik 20.000 urte inguru, ta Madaleniense ta Aziliense orain 14.000 urte bitartean, Homo Sapiens edo Kromañoi giza Afrikatik urtenda zabaldu zan Asia ta Europatik oiturazko eritzi bardiñ eta leen euskerazko izkuntz antzeko baten, eta leiñutan erritu eben lurralde guzti au, euren batzar nagusien antola bidez.

Leen euskerazko izkuntz antzeko baten zabaldu zirala, ez ote da izango lar esatea?.

Ez!. Len Wilhelm Humboldt izkuntzalari aundiek, eta gaur ospe aundiko Theo Wennemann ele jakintzaren ospe aundiko maisua ta Peter Foster jenetikaren irakasle, eta ainbat aztertzaile arduradunek: Europaren oiñarrizko gizartean edo jendearen jenetan eunetik, irurogeita amabost Homo Sapiens, Kromañoi edo Euskaldunak dirala, eta euren oiñarrizko izkuntza euskerea zala esaten dabelako.

Gure artean be badaukaguz ardura aundiz izandako eta gaur diran izkuntzalari aundiak, eta Felix Zubiaga ta Legarretak bere azterbideko “Origen y

desarrollo del lenguaje” eta “Vascoeuropeismo versus Indoeuropeismo” liburutxoetan egiztatu egiten dauazanak azalduko dautsuedaz.

Lenengoan: “Munduko gizarteetan mintzoeraren jaiocera eta bere garapena edo azkeraren edestia azalkatzea, munduko gizaren jendekuntzazko edestia dala argitu egiten dana, bere neurri guztietan”.

Eta Euskerazko mintzoera bat bezala, Izadiak daukazan irudizko eredu nagusietan ikertu ta ipuin bezala adieraztea: “Edesti ta edesti aurre onena dala, gizatasunagaitik iñoz azaldu, esan, edo kontatu dana” euskal endaren jatorrizko edesti osoa argitzen daualako.

Bigarreanean: “Izkin bateraiño aztertu egiten dauan izkuntza batek, jatorriz edo sortezko izkuntza da, izkin bateraiño eltzea eredu nagusian, ozenezko⁽¹⁾ iturria argitzea dalako berbearen mintzo edo abots sorkuntzan”.

-“Eta euskerea al dalako izkin bakarreraño eldu, orain ezin da esan alderatzaileak⁽²⁾ esaten daben antzera, euskerea jatorriz ezagutzen ez dan izkuntza bat dala, mintzoeraren oguzpeneko⁽³⁾ jaiokeran, bera dalako berezko aitortzaile”.

(1) Ozenezko = sonoro. (2) Alderatzaileak = comparatistas. (3) Mintzoeraren oguzpeneko = pronunciación articulada.

-“Orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz bakar bi-
detik eta onen eredu nagusiko leen analogi arauz,
beren jaiokera argitzen dauan izkuntz bakarra”.

-“Euskereak, inguruan daukazan oraingo mintzo-
erak baiño obeto ezagutzen dau beren jatorritasu-
nezko edestia, nai ta eurak jatorrizkoak dirala esan.
Bere esangura, mintzotasunezko gorputz guztiko
itzaren alkartzezko antolakuntzan eta entzuteko
abotsetan irarrita daukazelako”.

-“Zeruko⁽¹⁾ eredu nagusiaren antzezko⁽²⁾ zuzen-
tasunetan “Izadi iztia”⁽³⁾ da, gizadiaren jakintzan
“gogo iztia”⁽⁴⁾ ta “giza iztia”⁽⁵⁾ da, bai dirdaitesu-
nezko gogarketa⁽⁶⁾ gizartearen eredu nagusiaren
antzezko zuzentasunetan, eta “teologia” da, oneik
zeruko eredu nagusiagaz bat egiten dabenean.

-“Euskereak, sumerio izen jakintzazko irudimena-
ren eredu nagusiko arlo aundietan eta gramatikan
be esku artzen dau, Ugarit⁽⁷⁾ ta Ejiptoren azturazko
jakintzagaz jazten joan zalako”.

-“Izkuntz edo mintzoeraren trebetasuna ipuiezko
asmamena⁽⁸⁾ da, eta eredu nagusian berba barrien
jaikunezko kokamenaren⁽⁹⁾ trenbetasuna be bai,
aiek ez dabelako galtzen abotsik, antolamenduzko
zentzurik, ez aintzintasunik, bieri aurreratuzota
burutakizun barrien artu emonetan.

-“Lojika, izkuntz edo mintzoeragintza baten, mitologia
beste balio dau, biak alkartu egiten diralako gaiezko
Izadi onen antolakuntzan eta arri aro barriko gizonen
oldozmenean”.

-“Berbeak, esan/izaneko elburua bete dagian, atse-
gintasunezko ardura aundiz zaindu zan beren oitu-
razko arau zaletasunean”.


“Izadi onen berezko antolakuntzagaz egokituta
egon daiten guztia, eta oroimenean atzerakadarik
ez daiten egon, bere galduerak danoen oarkabean
atzerakada galanta egin ebala ta, ele jakitunezko
gorputz osoa ez dagoenagaz bir jabetzen, ermeneu-
tika edo adierazketaren gabetasunean dagozelako”.

ERRIA IZATEKO LENENGO OINKADAK.

Goian ikusi dogu zelan Homo Sapiens edo Kroma-
ñoi giza zabaldu zala izotzaldia urtzen asi zanean,
orduan ezagutzen zan Afrika, Asia ta Europako iru
lurralde andietatik, eta Afrikatik urten ebenean,
oiturazko jakintzan ta leen euskal izkuntz bardin
antzeko baten zabaldu zirala.

Paleolitiko Neolitiko milla urte bitarteko aldietan
lortu eben, gaur, “Atlantida” galdu zan jendekuntz
demokratikoa esaten dana, leiñuzko lurraldearen
antolamenduan euren batzar nagusiekaz Euska-
lerrian sortzen dan lez, gaurko egunerarte jatorriz
etorri jakuna.

Ekialdeko leiñuak, Europa
baiño 3.000 urte ariñautik
lortu ebezan jende-
kuntzazko era
berritze edo



(1) Zeruko = divino. (2) Antzezko = analogias. (3) Izadi-iztia = cosmologia. (4) Gogo-iztia = tratado del alma psicológica. (5) Giza iztia = antropologia. (6) Dirdaitasunezko gogarketa = meditaciòn refleja. (7) Ugarit = Siriaren itsas-ertzean antziñako iri edo uria. (8) Ipuiezko asmamena = imaginaciòn mítica. (9) Jaikunezko kokamenaren = engarce ritual.



aurrerakuntzak, eta beragaz, lenengo idazkian aipatzen dodan lez: “Sargon edo beste menperatzaillegandik asita, nortasuna eta norkeriaren arteko borroka latzakin, leiñu, erlijio ta izkuntz asko ezereztu edo naastu egin ebazanak, nortasunezko izaeran atzerakada galantak eginda.

Maltzurtasunezko menperatzailletasun orren bidez leiñuak bake billa, Asia, Afrikan bertan ta Europako lurralderantza, ainbeste errialda⁽¹⁰⁾ egin eben eta ikertzailleak mugatuta, indoeuropeoaren izenagaz esagutzen dira.

Persiarrek, Europako sartaldea be gura eben menderatu, baiña lenengo Greziaren antolamendu demokratikoa ezereztu bear, eta auek or geratu ebezan Medikas deritzon gudarekin.

Eta goian aipatutako aztertzaile jakintsu orreik ikertu ta gero dakie, euren bardin antzeko leiñuen oitura ta izkuntzak nastekatu arren, euren izkuntz barriko berbeak oiñarriz, lenengo edo asierako itzotsak daukiezala, lur zabal orreitan geratzen diran toki izenaren antzera.

Izkuntzaren berbak eta toki izen itzak iraun dagien, errotsu ta ondo sustraituta egon bear dira euren

nortasunezko sinismenean, izkuntzan, oiñarrizko itz orretatik asi ziralako azturaz jakintasunezko argitasunera zabaltzen, eta naita izkuntzan, batzuen norkeri bidez naste askotan sartuta egon, itz oiek eta toki izenak milla urte askotako jabetasuna euki izan bear izan dabe oraindiño iraun dagien.

EUROPAREN ASKATASUNEZKO EUSKAL ZENTZUZKO IZAERA.

Paleolitiko-neolitiko bitartean, bakez bizi zan Europako sartaldea gorengo jendekuntz demokratiko onenean Jaungoikoaren sinismen antzeko baten, eta leiñu bakotzaren lurralde batzar nagusiko antolakuntzan euskalki izaeran. Atlant itsasotik, Europa erdian sakon sartu arte eta Eskozia⁽¹⁾ edo Britainatik Kadizeraiño, areik eta K.a. 2.000 urte inguru len aipatutako indoeuropeo edo keltiar leiñu alderraiak Ekialdetik agertu arte.

Or, agertzen da lenengoz Europa, euskerearen bereztasunezko sendi giro baten.

Aberria al izango ote zan ?.

Orduan ez zan ezagutzen eta gitxiago ulertu aberriko itzik, leiñuaren sendi giro bateko lurraldetan euren

(10) Erri-alda = emigración, o, exodo de un pueblo. Alderrai = nómada, (1) Piktoak euskaldunak ziran.

batzar nagusiekin laterrituta, eta baitaren neurri onenean ondo antolatuta, zor eskubideak demokrazizko askatasunean on ordezkatuta bizi baiño besterik ez.

Beste antolamendurik bear izanik ete eben ?.

Baiña, XVIIIIn gizaldean Europa norkerizko askakizunez laterritu zan aberri barriakin baiño, eskubide geiagokoagaz bai beintzat.

Aiek: berezko landarearen antzera, Jainkoaren lege bereztutakoan nortasunez sendi giro baten, berez edo jatorriz aberri jaiok ziralako.

Auek: sasijainkotza billa eta alegin onek emoten dautseezan egarriagaz, Jainkoak bereztutako legearen aurka, norkeriz asmatuta lapurrezko aberriak diralako.

Europako mendebal onetan leiñu alderraien mogimendu ugariakaz, borroka asko egin eben euskal leiñuak ortik aurrera, ekialdeko leiñu alderrai geienak, menderatzale eritzia ekarten ebelako askatasunezko lurralde oneitara.

Eta orduan sortu zan borrokazko menderatzail zoraldia gitxi bazan, Etruskoak K.a. VIIIIn gizaldian⁽²⁾

erromatar askakuntza sortu eben, euren salerosketako maixutasun aundian, itsas ertzeko uriakaz euki ebazan arremen onak eta irasi egiten ebazan uriak babesteko.

KELTIARREN EDESTI LABURRA.

K.a. 2.000 urte inguru, Alemania erdigune lez artuta, Europako Ekialde guztian euren leiñuzko auzoetan laterrituta ezarri ziran.

Keltiarren lenengo aldakuntzak, 1.800-1.600 urte inguruetan, Britaniako ugarteetara egin eben lenengo erri aldakin asi ziran.

1.200-800 urte bitartean Galia edo Frantziaren Britaniako lurraldeetara, Loira ibai gaiñetik eta Britaniaren itsas bazterreko bitartean Frankoak kokatuta.

K.a. 900-500 urte bitartean, burdiñezko asieran⁽¹⁾, Austriako Iparraldean Hallstatter ur geldi inguruan, Hallstatt⁽²⁾ burdiñaren jendekuntzazko⁽³⁾ tokian eta Alemaniaren Ego aldean Renaniako lurraldeetan kokatuta egon ziranean, Keltiarren giza Europaren Sarkaldetik zabaltzeko atondu edo prestatzen asi zan.



(2) K.a. 753an. (1) Ekialdetik ibilita eta Ititaren jendekuntzatik artuta, itzulkeran, eurak ekarri eben burdiñaren ezauntza. (2) Hallstatt = burdiñaldiaren jendekuntzazko lekua, 2.000 ilobi baiño geiago aurkitu zan lekua eta gatzaren meaztegiak. (3) Jendekuntza = civilizaciòn.

VI-In Mende artean, keltiarren Tene deritxon goimaillazko aldiari, keltiar leiñuak zabaldu ziran Europako lurralde guztietara.

Britanoak Ingalaterrara joanda, Goibeloak bota ebezan. Akitaniatik Iberiako erdi ugartera⁽⁴⁾ aldatu ziran, keltiberiako errigizartea sortuta.

Keltiarrak indartsuak izan arren eta euren azturari naita asko ikusikoak izan, orduko menderatzailearen denboretan ez eben garrantzi aundirik euki.

Jendekuntzazko jakiturian be maillakoak izan edo ta neurri aundi baten askatasunezkoak izan ziralako, euren oldozmeneko asmakizunetan, ez ziran eltzen besteak morroitasunera menperatzen. Eta orduko denboratan, zalantza orreitan kokatuta egon ezker, erromatarren antzera, menderatzaile azkar ziranakaitik bultzatuta, ia aienatu ziran Europa guztian, berezko erritartean.

Euskalerriko lur zabaltasunari, ortik aurrera asi jakon murrizketa, bere lurraldea Frantziko Loira ibaitik, Iberia edo erdi ugarte onen erdi ingururaino⁽⁵⁾, eta Atlant itsasotik Akitania osotzen ebana-gaz mugatuta geratu zalako.

ETRUSKOEN EDESTI LABURRA.

Etruskoak Arno ta Tiber ibaien artean kokatuta, jakintza aundia euki arren ez eukin lotsarik euren

gizabidea aberastuteko, Siria, Ejipto ta Griegoen jakintzazko aurrerakuntzatik bear ebena artzen, eta eukin arrokerian, maitasun geiago emoten eutsoen apainkeri ta opor aldeari, gudaren zaletasunari baiño.

Ikusi dogu K.a. VIIIn gizaldian zelan irasi eben Erroma, eta VIIIn gizaldian euren zabalkuntza erabagita, orren gizaldi erditik onantza, eurak zuzendu eben Erroma gizaldi bateko agintaritzan.

Adriatikoko Iparraldetik itsasalde guztia eta Korzikako ugartera menderatuta euki arren, Uri nagusien bereiztasunak ez eutsen izten batasun batera eltzen, eta VIIn gizaldian maldaberan sartu ziran erromatarren aurka asi ziranean.

K.a. 509an, Griego, Samita ta Galoak alkartuta, Etruskoen erregea kanporatu eben eta euren lur guztiakaz geratu ziran.

K.a. IVn gizalditik onuntz, erromatarrengandik babestu egin bear izan eben, euren Uri nagusi guztiekaz geratu ziralako, eta 295ean euren guztiz menderatuta, 90eko urtean erritarren gizarteko guda ostetik, 89an erromatar uritargo edo erritargoa artu bear izan eben.

Atutxatar Paul
Zornotzan 2.011n Urtarrilla 25ean



(4) Iberiako erdi ugartera = península iberica. (5) Ni, uste osoan nago Kadizeraino zala.

#Euskaldun barrientzat

Zazpi utsak



Sudoku

	5						4	
6				2				3
		3	4		7	9		
		7	5	9	8	4		
2	6						9	8
		8	6	4	2	3		
		6	1		5	2		
9				6				4
	8							3

5	3	9	4	7	6	3	5	1
4	8	2	9	7	4	6	3	5
4	9	7	5	2	6	3	1	8
4	3	6	1	8	5	2	7	9
5	9	8	6	4	2	3	1	7
2	6	4	7	3	1	5	9	8
3	1	7	5	9	8	4	2	6
8	2	3	4	5	7	9	6	1
6	4	1	8	2	9	7	5	3
7	5	9	3	1	6	8	4	2

Ikasten



ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



Bat,Bat,Bat

Bat, bat, bat bart parrandan ibilli,
Bart parrandan ibilli

Bi, bi, bi ez naz ondo ibilli,
Ez naz ondo ibilli

Iru, iru, iru kolkoa bete diru,
Kolkoa bete diru

Lau, lau, lau sardiña bakalau.